

## **IRABAZI-ITURRIAK:**

Hezkunderrek, helburu bereziki soziala duen enpresa baten gisa funtzionatuko du. Honek esan nahi du, onura ekonomiko guztiak enpresaren jabeontzat bideratu beharrean, zati handi bat kolaboratzaileentzat (irakasleentzat) eta langileentzat (informatikoentzat) bideratuta egongo dela eta bertan lortutako dirua ber inbertitzeko prest egongo gara.

Horretarako diru sarrerek izan eta banatu beharko genituzke. Informatikoei, diru laguntzen bidez ordaindu ahal diegun arren, bezeroek ordaindutako **lan orduen ordainketaren ehuneko txiki bat eman** egitea da gure asmoa. Demagun hogeitaz irakasle ditugula, bataz beste hogeita bost euro kobratuz lanorduko (10-12 ikasleko; oso gutxi, nahiz eta taldea handituz gehiago irabaziko luketen) eta 8 ordu lan eginez egunero. Horrekin informatiko pare batentzako soldata izango genuke nahiz eta denborak aurrera egin ahala errazagoa izango litzatekeen informatiko gehiago kontratatzea (izan ere irakasle gehiago izango genituzke).

Azaltzen den bezala enpresa bideragarria izango litzateke 20 irakaslek 20-25 euroren truke zortzi ordu lan egingo balituzte. Halere, errentagarritasuna hobetzeko hurrengo tarifa hauek diseinatu ditugu :

Ikasle Kopurua	Ordu bakoitzaren kostua bezeroentzat eta bakoitzaren abantailak
<b>1</b>	Klase guztiz indibidualek <b>15 euroko</b> balioa izango dute gure enpresan. Hauek bereziki gomendagarriak dira, arreta erraz gal dezaketen ikasleentzat
<b>2</b>	Binakako klaseek <b>25 euroko</b> kostua izango dute bezeroentzat (12,5€ pertsonako). Klase hauek gomendagarriak dira arazo bera dutenentzat, hala nola, anai edo lagun pare batentzat.
<b>3 edo gehiago eta 8 edo gutxiago</b>	Taldeko klaseek pertsonen arabera balioa izango dute, izan ere, ikasle bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu ikastorduko. Halaxe, enpresaren errentagarritasuna handituko genuke, bada, 25 euroren trukeko zerbitzu baten bidez asetuko genukeen behar bat gutxienez 30 euroren truke asetuko genuke. Hau da, enpresaren beharrez gain irabaziak izango genituzke (bost, hamabost, hogeitabost... euro irabaziko genituzke).

Hasieran, bisita gutxi izango genituzkeenez, iragarkiak ipini aurretik **hezkuntzarekin erlazionatutako produktuak salduko genituzke**. Adibidez, ordenagailuak, tabletak, arbela txikia, estutxeak... Amazonen edo beste edozein dendaren afiliatuen programara batu beharko ginateke, produktu bakoitza dagokion enpresaren linkaren bidez eskaini, eta ondoren, lortzen dugun salmenta bakoitzeko, ehuneko hamarra gutxi gorabehera guretzat izango litzateke.

Aurrerago, bisita gehiago izango genituzkeenez eta bideragarriagoa izango litzatekeenez, **gure webgune edo aplikazioan iragarkiak eskegiko ditugu**. Horretarako hurrengo urrats edo aholkuak jarraituko ditugu.

Online iragarkien funtzionamendua oso sinplea da: iragarkien sare bat kontratatzen duzu (iragarkia zure blogeko edukietara egokitzen dute, zure irakurleengan ahalik eta interes handiena pizteko) publizitate-eredu jakin baten pean. Hortik aurrera, normalean hornitzaileak JavaScript (JavaScript (edo JS) goi-mailako programazio-lengoaia bat da ) zati txikiak emango dizkizu, zure blogean erraz erabili ahal izango dituzunak, eta horiek dira iragarkiak hainbat tamainatako testu edo grafiko moduan bistaratzen dituztenak, konfiguraturako pagoen arabera.

